



Ajangizko Udala



AJANGIZKO UDALAK 2014KO ABENDUAREN 18AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua jauna

Zinegotziak:

*Beñat Onaindia Goñi jauna
Aiora Berrojalbiz Olaeta andrea
Joseba Lauzirika Mugarza jauna*

Bitarteko Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2014ko abenduaren 18an arratsaldeko 18:30etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

1.- AZKEN BILERETAKO AKTAK IRAKURRI ETA ONESTEA, BEHAR BADA.-

2014ko azaroaren 27an ospatutako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztiek onartu dute.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONESPENA, BEHAR BADA.-

- **Azaroaren 26ko 2014/135 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2014ko Udalbiltzako 1.000,00 euroko kuota ordaintzeko agindua
- **Azaroaren 27ko 2014/136 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko urriaren 16ko 213/2012 Dekretuak xedatutakoa betetzeko, EKO INGENIERIA ACUSTICA S.L enpresari lanen esleipena
- **Azaroaren 27ko 2014/137 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalari Gernikaldeko Behargintzako partaide modura dagokion 1.462,94 euroko kuota ordaintzea.
- **Azaroaren 27ko 2014/138 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udalari UEMAKo partaide modura dagokion 813,50 euroko UEMAKo azken kuota ordaintzea.
- **Azaroaren 27ko 2014/139 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kiroldegirako diru laguntzak.
- **Azaroaren 27ko 2014/140 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** BI-1828-BB matrikuladun ibilgailuari 2015tik aurrera zergaren salbuespena onartzea, udal zerga ordenantzaren 4. artikuluan oinarrituta.



Ajangizko Udala



- **Abenduaren 1eko 2014/141 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** ZUBIARTE ITURGNTZA C.B. enpresari, Kultur Etxeko berogailu sistamarako zirkulazio bonba berriaren horniketa agintzea.
- **Abenduaren 9ko 2014/142 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kanpantxu 77an (Ajangizko udalerrian) txabola eraikitzeko egindako lanak legez kanpoko aitortzea.
- **Abenduaren 11ko 2014/143 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2011ko abenduaren 5ean sinatutako hitzarmenean oinarrituta, Lea-Artibaialdeko Hedabideak S.L.ri 1.300,00 euro ordaintzea, 2014ko kuota modura.
- **Abenduaren 11ko 2014/144 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Kiroldegirako diru laguntza.

3.- URRETXA INGURUKO HERRI BIDEEN ETA BASERRITARAKO SARREREN EGOKITZAPENERAKO PROIEKTUAK AFEKTATZEN DITUEN ONDASUN ETA ESKUBIDEEN OKUPAZIO AURREKO AKTAK BURUTZEKO EGUNA ZEHAZTEA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak, 2014ko azaroaren 27an ospatutako osoko bilkuran, Urretxa inguruko herri bideen eta baserrietarako sarrerak egokitzeko lanen exekuziorako beharrezko diren ondoren zerrendatzen diren ondasun eta eskubideen behin betiko zerrenda onartu zuen, ondoren azaltzen denaren arabera:

- A) Partzela 1
Erregistroko inskripzioa:
Gernika-Lumoko Jabetza Errolda
- Liburua: 4
 - Liburukia: 703
 - Finka: Ajangizko 243
 - Titularra: Maria Oar Arteta Undabeitia
 - Derrigorrezko desjabetzapena: 72 m²

- A) Partzela 2
Erregistroko inskripzioa:
Gernika-Lumoko Jabetza Errolda
- Liburua: 4
 - Liburukia: 703
 - Finka: Ajangizko 182
 - Titularra: Jesus Oar Arteta Undabeitia
 - Derrigorrezko desjabetzapena: 133 m²

- B) Partzela 1
Erregistroko inskripzioa:
Gernika-Lumoko Jabetza Errolda
- Liburua:4
 - Liburukia: 703
 - Finka: 243
 - Eskubide errealaren titularra: Caja Laboral Popularren aldeko hipoteka.
 - Derrigorrezko desjabetzapena: 72 m²



Ajangizko Udala



Osoko bilkura berak, aurretik deskribatutako ondasun eta eskubideak urjentziaz okupatu beharra aldarrikatu zuen, beraien kokapenak duen interes publikoa kontutan hartuta, 2/2006 Legeko 178 artikulua araututakoarekin bat.

Desjabetu beharreko lurzoru modura, proiektuan behar bezala justifikatuta jasotakoa onartu dela ikusita indefentsiorik ez da sortu. Hala ere, behin betiko neurketa eta edozein dudaren azalpena okupazio aurreko akta egiten den unean burutuko ahal izango da, eta jabeek nahi izanez gero lursailera bertara joan daiteke neurketak bere aurrean egin ahal izateko.

Apirilaren 18ko 781/86 Erret Dekretu Legegileak onartutako Toki Erregimena arautzen duen Testu Bateratuko 94 artikulua jasotakoa kontutan hartuta.

Ekainaren 30eko Euskadiko Lurzoru eta Hirigintza Antolamendurako 2/2006 Legeko 174 eta hurrengo artikuluek araututakoa kontutan hartuta.

Derrigorrezko Desjabetzapen Legeko 2tik 5era bitarteko artikulua, 10, 15, 52 eta hurrengo artikulua eta Derrigorrezko Desjabetzapen legea garatzen duen Arauko 16 eta hurrengo artikulua kontutan hartuta.

Udal Osoko bilkurak aho batez onartzen du:

Lehenengo.- Jabeek okupazioa onartu ez duten lursail eta eskubideen desjabetzapen espedientearen tramitazioarekin aurrera egitea.

B) Partzela 1

Erregistroko inskripzioa:

Gernika-Lumoko Jabetza Errolda

- Liburua: 4
- Liburukia: 703
- Finka: Ajangizko 243
- Titularra: Maria Oar Arteta Undabeitia
- Derrigorrezko desjabetzapena: 72 m²

C) Partzela 2

Erregistroko inskripzioa:

Gernika-Lumoko Jabetza Errolda

- Liburua: 4
- Liburukia: 703
- Finka: Ajangizko 182
- Titularra: Jesus Oar Arteta Undabeitia
- Derrigorrezko desjabetzapena: 133 m²

D) Partzela 1

Erregistroko inskripzioa:

Gernika-Lumoko Jabetza Errolda

- Liburua: 4
- Liburukia: 703
- Finka: 243
- Eskubide errealaren titularra: Caja Laboral Popularren aldeko hipoteka.
- Derrigorrezko desjabetzapena: 72 m²



Ajangizko Udala



Okupazio aurreko aktak jasotzeko eguna datorren urtarrilak 12, eguerdiko 12:00etan finkatzea. Elkargunea Ajangizko Udaletxea izango da, eta jabeek hala nahi izango balute desjabetzapenaren objektu diren lursailletara joango litzateke.

Ondasun eta eskubideen okupazio aurreko aktak jasotzeko eguna eta ordua espedientean ininteresdun direnei jakineraztea 8 egun naturaleko aurretiazko epearekin eta beharrezko balitz benetako okupazioren berri ere.

Aurretiazko aktak jasotzera, Alkate udalburua joango da. Halaber, espedientean ininteresdun direnak ere aurkeztu ahal izango dira Desjabetzapenerako legeak 2, 3 eta 4. artikuluetan araututakoaren arabera, bai pertsonalki edota behar bezala baimendutako pertsonak ordezkaturak, nahi dituzten tekniko eta aholkulariak eramanez, baita Notario bat ere nahi izanez gero (gastu guztiak euren gain izango dira), Aktan egoki deritzaten datuak edo obserbazioak jaso daitezten (izan ere hau da desjabetzatu beharreko ondasunei buruzko erreferentzi akatsei buruzko erreklamazioak aurkezteko azken unea). Interesdunek beraien titulartasuna kreditatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dituzte.

Okupazio aurreko akta jasotzeko egunerarte, espedientean ininteresdun direnek eta erlazioan jaso ez diren eskubide edota ondasun erreal edo ekonomikoen titularrek idatziz, ondasun eta eskubide afektatutak erlazioatzean egon diren akatsak zuzentzeko helburu bakarrarekin, nahi dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte, guztia behar bezala kreditatuz.

Okupazio aurretiko aktak jasotzen diren unean, okupazio aurreko depositoaren prezio-orriak jakineraziko dira eta kasuan kasu, lasterkako okupazioak sortu ditzazkeen kalteen ordainerako indemnitazioak ere, Desjabetzapenerako Legeko 52.artikuluko 4. eta 5. Ataletan jasotakoaren arabera.

Bigarren.- Akordio honen jakinerazpenetik 15 eguneko epea zabaltzen da, Derrigorrezko Desjabetzpen Legeko 24. artikuluaen arabera administrazioa eta desjabetzatuen arteko akordioa lortzeko, hauei ondasun eta eskubideen akordio bidezko eskuraketa bideratzeko proposamenak aurkez ditzaten gonbidatuz. Halere, tramitazioaren egoera dena dela, aldeek akordio batetara heltzeko aukera izango dute.

Prozedura honen tramitaziorako beharrezko ekintzetarako Alkate Udalburua ahalmentzea, bereziki berehalako okupazioa behar duten lursailletako jabeekin akordioetara heltzeko.

Hirugarren.- Bidezko txosten teknikoan oinarrituta 1.086,00 euroko kreditu retentzioa egitea 2015eko aurrekontuaren gain, pieza bereizian suertatzen den behin betiko justiprezioaren ordainketarako.

Laugarren.- Akordio hau ininteresdunei jakineraztea eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta egunkari bitan argitaratzea.

Erabaki hau tramite hutsezkoa dela kontutan hartuta ez dago bere kontrako errekurtsorik jartzerik, bidezko deritzoten akzioen kalterik gabe.

6.- URRETXA INGURUKO HERRI BIDEEN ETA BASERRIETARAKO SARREREN EGOKITZAPENERAKO LANEN BIGARREN ZIURTAGIRIAREN ETA HORRI LOTUTAKO FAKTURAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-



Ajangizko Udala



Ajangizko Udalak 2014ko abuztuaren 28an ospatutako osoko bilkuran, Urretxa inguruko herri bideen eta baserrietarako sarreren egokitzapenerako lanak CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A. enpresari esleitu zitzaizkion, 190.987,93 euroko prezioan (gehi 40.107,46 € BEZ).

2014ko azaroaren 27an ospatutako osoko bilkuran, lanen zuzendaria den Carlos Ortiz de Zarate jaunak aurkeztutako, lanen 1. ziurtagiria onartu zen 28.050,17 euroko kostuarekin. Aldi berean, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 28.050,17 euroko kostu orokorrarekin aurkeztutako 2014ko urriaren 31ko 2014/159 faktura onartu zen.

Carlos Ortiz de Zarate lanen zuzendari jaunak, 2. ziurtagiria aurkeztu du 100.481,21 euroko kostuarekin.

Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 100.481,21 euroko kostu orokorrarekin aurkeztutako 2014ko azaroaren 30eko 2014/173 faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

Lehenengo.- Urretxa inguruko herri bideen eta baserrietarako sarreren egokitzapenerako lanen 2. Ziurtagiria onartzea, 100.481,21 euroko kostu orokorrarekin.

Bigarren.- Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako 100.481,21 euroko kopuru orokorra duen 2014ko azaroaren 30eko 2014/173 faktura onartzea.

Hirugarren.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daditezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

5.- AJANGIZKO HIRI ANTOLAKETARAKO PLAN OROKORRAREN ZUZENKETA, BEHAR BADA: BIZIKLETA SISTEMA SARE OROKORRA.-

Alkate jaunak azaltzen duenez, 2013ko urtarrilaren 24an (40 sarrera zbkia.), Bizikleta Sare Orokorraren nondik-norakoarekin ezadostasuna agertuz idatzi bat aurkeztu zuten udaletxean herritar batzuk.

Idatzia aztertu ondoren, udaletxetik 2013ko otsailaren 19an (81 irteera zbkia.) Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailera Iniciativas Ambientales enpresak proposatutako bideei udalaren kontrako postura aurkeztu zitzaion, bizikleta ibilbidea egiteko beste proposamen batzuk eginez.

Gai hau azaltzeko, Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan eta Garraio saileko ahaldundu andrearekin batzarra egin eta udalaren postura azaldu zitzaion. Bere aldetik inolako eragozpenik ez zela egongo azaldu zuen, eta beraien asmoa proiektu orokor bat egitea baino ez zela, ez zutela oraingoz proiektua burutzeko asmorik.

Gerora, udalak bidalitako proposamenak aztertuta, ezeztatuak izan ziren malda larregi zutelako, eta ez zirelako bizikleta sarea egiteko proiektuak eskatzen zituen baldintzetan sartzen.

Plan Orokorraren tramitazioarekin jarraituz, plana burutzen ari diren teknikariek sare orokor hori udal planeamendu barruan sartu zuten 2011ko apirilaren 6ko Herri Lan Sailaren txosten



Ajangizko Udala



batean oinarrituta: bertan adierazitakoaren arabera, “Urdaibaiko Bizikleten Ardatza” sartu beharra zegoen baldintza lotesle modura.

2014ko urriaren 10ean (480 sarrera zbkia.) udaletxean Urdaibaiko Patronatoak Ajangizko Hirigintza Antolaketarako Plangintza orokorraren hasierako onarpenari buruzko txostena aurkeztu zuen.

Txosten honek zera azaltzen du: *“Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Lan eta Garraio sailak sustatutako 2013-2016 Plan Zuzendari Ziklableko Muxika-Gernika ibilbideko Ajangizko zatiari dagokionez, honako hau erizten da: HAPOn Ajangizen Plangintza Berezia aurreikusi beharreak egokiagoa izango litzatekela hurrengo udal hirigintza araudian Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Lan eta Garraio sailak egokitzat hartuko duen tresnari bidalketa egitea. Dena dela, tresnaren gainean Urdaibaiko Biosfera Erreserbako Patronatoak txostena eman beharko du, gune hori arautzen duen araudiaren arabera”.*

Puntu hauek kontutan hartuta, berriro ere Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan saileko diputatu andrearekin batzartu eta udalaren postura berriro ere azaldu zitzaion: udala ez dagoela sare orokorraren kontra, baina proposatutako nondik-norakoak Ajangizerako ez duela ekarpenik.

Bere esanetan, Bizikleta Sare Orokorra oraindik onartu gabe dago, eta ondorioz PTSa behin betiko onartzen ez den bitartean ez da loteslea. Hori jakinda, Aldunditik inolako arazorik ez dutela Ajangiztik doan zatia kentzeko azaldu zuen eta tekinariekin hitzegiteko.

Teknikari desberdinekin hitze gin ondoren, udalak 2013ko abenduaren 13ko Herri Lan eta Garraio Sailaren txostena eskuratu ahal izan du, eta bertan zera azaltzen da: *“... desde el Departamento de Obras Públicas y Transportes se recomienda que el Ayuntamiento reconsiderare la decisión municipal de introducir o no el eje en su planeamiento. En caso de que no sea incluido dicho tramo, el Eje ciclable de Urdaibai tendría vocación de comenzar en gernika y el tramo en cuestión sería eliminado de los documentos forales que se están actualmente elaborando...”.*

Beñat Onaindia zinegotzi jaunak, udalaren asmoa bizikleta sare orokorraren kontrakoa ez dela argi utzi behar dela aipatzen du, aurkeztutako proposamenak herriarentzat hobebharrik ekarten ez duelako hartzen dela erabaki hau.

Aipatutako guztia kontutan hartuta, udal osoko bilkurak aho batez adosten du:

Lehenengo.- Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lan saileko 2013ko abenduaren 13ko txostenean oinarrituta, Bizikleta Sistema Sare Orokorren azpiegitura Ajangizko Hiri Antolaketarako Plan Orokorretik kanpo ustea.

Bigarren.- Erabaki honen ondorioz Hiri Antolaketaren Plan Orokorren ondorengo dokumentu hauen aldaketa:

1.- OE 02. Ordenación estructural. Calificación Global y Sistemas Generales **planoa**

2.- **Hirigintza arauak.**

289 artikulutik Bizikleta Sistema Sare Orokorren egiten zaizkion aipamen guztiak kentzen dira, artikulua honela utziz:



Ajangizko Udala



Artículo 289. Sistemas Generales.

A) SISTEMA DE COMUNICACIONES

Eje nº7. Camino de enlace de núcleos; Desde Mentxeta, por Kanpantxu, Argana, Mendieta, Elizalde, Ajangiz Zaharra, Bizkarrondo, y de ahí a Maloste o a Gernika por debajo de la variante.

Eje nº8. Camino de enlace de núcleos: Desde Ispizua, por Elizalde, hasta Ajangiz Zaharra, en paralelo a la BI-2224.

Eje nº9. Camino de enlace de núcleos: Desde Kanpantxu, hasta Maier.

Eje nº10. Camino de paso por rivera río Oka: Desde Argana, hasta Maloste

Eje nº11. Camino de paso por rivera de río Oka: Desde Maier, hasta desembocadura río Berrekondo.

3.- Memoria.

6.12 Informe obras públicas DFB. Diciembre 2013.

Tras la emisión del informe preceptivo de Obras Públicas para aprobación definitiva del Plan General, el Ayuntamiento acuerda no incorporar el sistema general de la red ciclable provisional.

Hirugarren.- Akordio honen berri Bizkaiko Foru Aldundiari jakineraztea, jakinaren gainean jarri eta dagozkion ondorioak sortu ditzan.

8.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Mikel Ander Zubizarreta alkate jaunak, 2014ko abenduaren 20tik 2015eko urtarrilaren 6ra bitartean, Beñat Onaindia Goñi alkate-ordea alkate funtziotan izango dela azaltzen du, bere oporraldian.
- Etxeetara, 2015eko aurrekontuak osatzeko proposamenak aurkezteko gutuna bidali dela azaltzen du alkateak, eta zinegotziei ere beraien proposamenetarako epea zabalik dagoela gogorarazten die.
- Bukatu aurretik alkateak danoi Gabon zoriontzuzak eta urte berri ona opa die.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da arratsaldeko zortziak laurden gutxitan, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA
Mikel Ander Zubizarreta Gonzalez-Rua

BITARTEKO IDAZKARIA
Saioa Pineda Aranburu